



ABENDUAK 2 DICIEMBRE
EUSKADIKO ARTXIBO HISTORIKOA
ARCHIVO HISTÓRICO DE EUSKADI



SEGURIDAD VIAL
Y MOVILIDAD SEGURA
en **ÁMBITO URBANO**

HIRIKO BIDE
SEGURTASUNA ETA
MUGIKORTASUN SEGURUA

Alfonso Gil Invernón

Coordinador de Políticas de Movilidad y Circulación del Ayuntamiento de Bilbao

2017rako, Bilboko Udaleko Zirkulazio, Garraio eta Ingurumen Sailak prest izan nahi du Hiri Mugikortasun Iraunkor eta Seguruaren Plan bat.

Gure helburua da Plan hori herritarren itun garrantzitsu bat izatea; hain justu, etorkizuna izateari utzi eta orainaldi bihurtu den errealitate bati buruzko ituna.

Gure hirian, hiri barneko joan-etorrien % 63 oinez egiten dira, % 22 garraio publikoz eta % 10 baino ez ibilgailu pribatuan. Horrenbestez, gure xedea da prozesu hau amaitzerako mugitzeko modua errotik aldatuta egotea Bilbon. Ateak ireki nahi dizkiegu hirian mugitzeko dauden modu berriei. Horren adibide dugu bizikleta, dagoeneko gure inguruko herrialde askotako kaleak konkistatu dituen ibilgailua.

Alabaina, hori guztia lortzeko, mugikortasun iraunkor eta segurua lortzeko alegia, gaitasunak batu eta zeresana duten arlo guztien parte-hartzea lortu behar dugu, eskura ditugun tresna guztiak baliatuta.

Eta, batez ere, herritarrei entzun behar diegu. Izan ere, ezin dugu ahaztu hiriak pertsonentzat eraikitakoak direla.

Zerikusia duten eragile guztien parte-hartzearekin gure hirian mugikortasunarekin lotutako aldagetak egitearen adibideak ditugu, esaterako, Castaños eta Irala auzoetan abian jarritako bi proiektuak.

Castaños auzoan, amaitzear dugu herritarren partaidetza prozesu bat, auzoa Giro Baketutako Gune (GBG) bihurtzeko helburuarekin irailean hasitakoa.

Denbora honetan zehar, auzokideen iritzia ezagutu nahi izan dugu, auzo iraunkor, seguru eta zirkulazioari eta bideko segurtasunari begira eraginkorrago bat lortzeko geuk egindako proposamenen harira. Aldi berean, euren ekarpenak jaso ditugu, webgunearen bitartez zein auzoan informazioa banatzeko jarritako hainbat karparen bitartez bizilagunei helarazitako galdetegi baten bidez. Proiektuaren diagnosi eta diseinurako zenbait tailer ere antolatu ditugu.

Informazio horrekin guztiarekin, eremurako azken proiektu bat osatu nahi dugu, oraindik ere itxi gabe dagoena eta Bilboko auzo horren eraldaketarako oinarri izango dena.

Gainera, esperientzia horixe gauzatuko dugu berandu baino lehen Iralan ere, helburu bera betetzeko: inguru horretako zirkulazioa baretzea eta gune hori gizatiarra goa bihurtzea, hain zuzen.